



Bertan
igogailuak

Tolosaldean finkatutako enpresa, %100 euskalduna

IGOGAILUEN
MANTENUA

Iraupen-konpromisorik
gabe funtzionatzen
duen enpresa bakarra

24 orduko benetako
zerbitzua eta pieza guztiak
barne 100€-tik aurrera



San Migel plaza 6 ■ IRURA ■ Tel.: 943 90 34 50 / 691 647 965
info@bertanigogailuak.eus ■ www.bertan.eus



2015^{eko} ABENDUAN HASIKO DIRA OBRAK

**%60
SALDUTA**



1.
SOLAIRUA

1 A: SALDUTA	105m ²	1 A: 230.000 €*	108m ²
		1 B: 210.000 €*	86m ²
		1 C: 215.000 €*	92m ²

2.
SOLAIRUA

2 A: SALDUTA	96m ²	2 A: SALDUTA	105m ²
2 B: 230.000 €*	96m ²	2 B: SALDUTA	86m ²
2 C: 185.000 €*	82m ²	2 C: ERRESERBATUTA	92m ²

3.
SOLAIRUA

3 A: SALDUTA	96m ²	3 A: SALDUTA	108m ²
3 B: 235.000 €*	82m ²	3 B: 220.000 €*	86m ²
3 C: 190.000 €*	82m ²	3 C: SALDUTA	92m ²

4.
SOLAIRUA

4 A: SALDUTA	96m ²	4 A: SALDUTA	108m ²
4 B: SALDUTA	96m ²	4 B: SALDUTA	86m ²
4 C: 195.000 €*	82m ²	4 C: SALDUTA	92m ²

TEILATUPEA A: 210.000 €*	93m ²	TEILATUPEA A: SALDUTA	92m ²
TEILATUPEA B: SALDUTA	84m ²	TEILATUPEA B: SALDUTA	106m ²
TEILATUPEA C: SALDUTA	84m ²	TEILATUPEA C: SALDUTA	73m ²



Finantzaketa



CAJA RURAL DE NAVARRAK finantzatu
Bermatutako kontuei

Taupadak

Milaka taupada eman eta utzi ditu 2015. urteak. Milaka taupada era eta estilo guztietakoak. Izan dira pozak, tristurak, gozamenak, ilusioak, haserreak, maitasunak, gorrotoak edota zirrarek sortutakoak.

Bi urtez behin sorrarazten dituen taupada berezi bezain azkarrek sortu zituen Korrikak Tolosaldean igaro zen bi egunetan. Carlos Urkijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, berriz, beste aldeko taupadak eragin ditu urte osoan zehar. Hainbat eta hainbat udal eraman ditu epaitegitara euskara hutsezko aktak direla-eta. Ibarra jaien hasiera izan behar zuen txupinazoaren debekuak ere ekarri zuen taupada andana.

Ezer izan bada, hauteskunde urtea izan da 2015a. Herri eta foru aldundi-ko ordezkariak gain, Gorte eta Senaturako ordezkari politikoak aukeratu behar izan dira. Kanpaina eta kanpaina aurea. Irabazi edo galdu. Gora edo behera. Ezker ala eskuin. Kolore askotako taupada ezberdinez osatu da Tolosaldea.

Tolosaldeko Ataria

2015. urtean, eskualdeko preso askok egin dute etxerako bidea. Taupada horiek emozio, ilusio eta poztasunekoak izan dira, baina espetxean sartu izanak dakarren etsipen eta minaren taupadak ere utzi ditu. Amaierarik ez dute izan eraso sexistek ere. Eskualdeko herri ezberdinetan jazo dira gertaera larregarriak, eta inoiz baino ozenago esan beharra dago ezin dela eraso gehiagorik onartu. Utzi ditu istripuak, utzi ditu albiste onak eta txarrak, urtebetetzeak, lan eta proiektu berriak,... baina festa eta ospakizunak ere ez da falta izan irribarredun taupadez lagunduta.

Bizitzeko beharrezkoak ditugu taupadak. Eta Atarikide bakoitzak eman eta oparitzen dizkigun taupadekin TOLALDEKO ATARIAK bizirik iraungo du. 2016a ere urte osasuntsua izan dadin, zuen taupaden zain izango gara.

Taupadaz taupada egingo dugu aurrrera.

Urte berri on!

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L **Lege Gordailua:** SS-1323-2013 **Koordinatzailea:** Eneritz Maiz
Kudeatzailea: Jexux Murua **Telefona:** 943 655695 **Webgunea:** www.ataria.info **Posta elektronikoa:** ataria@ataria.info
Irratia: 943 69 80 38 • 687 41 00 33 • FM 107.6 • FM 105.0 **Publizitatea:** 661 678818 • publi@ataria.info

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



Tolosaldeko gizarte eragileak

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



107.6 fm • 105.0 fm • www.ataria.info

Egin zaitez **atarikide!**

atarikide@ataria.info
943 65 56 95

Urtarrila

Ibarra



Jon Mintegiaga «Minde» espetxeratua

Urtarrilaren 12an atxilotu zuen Guardia Zibilak ibartarra. ETari babes ematea eta delitu fiskalak egitea egotzi zioten. Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epaileak espetxera bidali zuen.

Villabona

Galarraga eta Zelarain, kalean

Urtarrilaren 21ean aske geratu zen Eneko Galarraga euskal preso, hamabi urte Villabonatik kanpo eman ondoren eta azken zazpi urteak espetxean pasata. Urtarrilaren 23an, berriz, Julen Zelarain atera zen Valdemoroko (Madril, Espainia) espetxetik. Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako operazioan hamar urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta bi txandatan bete ondoren aske geratu zen. Biei ongi etorria egin zieten Villabonan.



Tolosaldea

Osasun Erakunde Bateratua, auzitan

Urte hasieran jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Osasun Erakunde Bateratua Tolosaldean. Eskualdeko alkateek agerraldi batean klinika pribatua «legitimo egiteko» pausotzat jo zuten Osasun Erakunde Bateratua. Haien ustez, arazoa ez da sistema bateratu bat abiaraztea, «osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik». Osasun sailak gehien-goaren nahiari bizkarra eman izana salatu zuten alkateek.



Tolosaldea

Europak jarritako muga gaindituta

Abenduko datuak eman zituen Tolosaldeko Mankomunitateak urtarilean. Eskualdean %62,8koa izan zen birziklapen tasa, Europak jarritako muga gainditu zen, beraz.



Zure iragarkia jartzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Amasa-Villabona

Naziotasuna bide seinaleetan aldarri

Amasa-Villabonako udalbatzak, «nazio eraikuntza bultzatu eta aldarrikatzeko» erabakia hartu eta euskal sinboloen erabilera bultzatu zuen urtarilean. Bide seinaleak jarri zituzten herri sarreran.

Alegia

Paulo Garaialde omendu zuten

Paulito, Ziklox Garaialde taldeko kide izandakoa hil zela 20 urte bete ziren urtarilean eta Alegiko gazte-txean omenaldia egin zioten urtarri-laren 27an. Triki-poteoa, afaria eta kontzertuak izan ziren.



Alegia - Hernialde

AHTaren kalteak Batzar Nagusietan

AHTa eraikitzeke lanek hainbat udalerritan eragin dituzten kalteak salatzeke Batzar Nagusietan agerraldia egin zuten Alegiako alkate Unai Iraolak eta Hernialdekoak, Igaro Baldak. Azken hau, herrian sortutako zulo erraldoiaz aritu zen.

Amezketeta

Euskarazko aktak direla-eta, salaketa

Aktak euskara hutsez bidaltzeagatik salaketa jarri zion Amezketari Carlos Urkijo, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak. Gero, irailean, Donostiako Administrazio-arekiko Auzien Epaitegiak Amezketako Udalaren aldeko epaia eman zuen, Urkijok egindako errekerimenduen harira. Udalak euskara hutsean aritzeko eskubidea duela nabarmendu zuen epaiak.

Tolosaldea

Eskubide Sozialen Karta amaituta

Urtarrilean aurkeztu zuten Euskal Herriko hainbat eragilek elkarrekin idatzi zuten Eskubide Sozialen Karta. Tolosaldean egindako 5 batzarretan 25 pertsona inguruk parte hartu zuten. Kartaren aurkezpenean Tolosako kultur etxean egin zuten eta «paperetik borrokarako tresna» izatera pasatzeko garaia zela nabarmendu zuten bultzatzaileek.



Tolosa



Juan Garmendia Larrañagari agurra

Urtarrilaren 8an zendu zen etnografo eta historialari tolosarra. Eusko Ikaskuntzako ohorezko bazkide (1996), Tolosako seme kuttun (1998) eta Aldundiko Ondare saria (2011) aipamenak jasoak zituen.



Zeru urdinak ez zituen ordu gehiegi oparitu azken inauterietan, tamalez. ITZEA URKIZU

Umelak bezain gogoangarriak

Hirugarren urtez, eguzkiak iruzur egin zien inauteriei, hausterre egunera arte jai hartuz

Goiztiarrak, freskoak, esperotakoak. Inauteri guztiak bezala, egiazki. Gogotsu hartu zituzten, tolosarrek, urteko egunik desiratuenak eta, are gehiago, Ostegun Gizenak oparitu zien eguzki gizenarekin. Eguraldi ona ez zen geratzeko iritsi, ordea, Tolosara.

Hirugarren urtez jarraian, txapela kentzekoa izan zen herritarren ke-

men inauterizalea, eguraldi petralaren aurrean. 2015eko festarik zoro-enei izenak jartzen hasita, hiru aukera litezke. Joakin Izagirre Kabi Alairen kuttuna, eta Kabila eta Vista Alegre txarangak, 75 eta 25 urte beteta, hurrenez hurren.

Gertakariak, gazi-gozoa

Asteartita goizaldean zenbait istilu izan ziren Kale Nagusian, Ertzaintza-ren eta herritar batzuen artean.

Gazte batzuek komisaldegian pasa behar izan zuten gaua, eta «gehiegikeria» salatu zuten agerraldi baten bidez.

Orendain

Liburua, herriko baserriez

Pakita Ormaetxea orendainen jaio zen, Agerre baserrian, baina gazte-rik irten zen herritik. Bere familia-ren eta baserriaren historia jasotzen hasi, eta Orendaingo baserri guztiena biltzen amaitu zuen, *Orendaingo baserriak* lana osatuz.



Albiztur

Santa Marinako eskola saldu

Herriko hainbat obragatik, mailegua eskatu zuen Albizturko Udalak. Horrela, herri batzarrean erabaki zuten Santa Marinako eskolak saltzea, maileguari aurre egiteko, proiektu garbirik ere ez baitzuten eraikina eraberrituz gero.




Ibarra**Garagune berria, adimena lantzeko**

Ibarrako Euskal Herria kalean, Garagune berria estreinatu zuten otsailean. Adimen urritasuna duten 13 pertsona artatzen dituzte bertan, eta Goyeneche Fundazioaren ardura da kudeaketa, gizarteratzea landuz.

**Tolosa****Hazitegiak, lan aukerak zabalduz**

Santa Luzia auzoko lursail bat egokitu zuten, baratze hazitegi gisa. Urtebeteko kontratupean, ekintzaileek ustiatuko dute eremua, nekazaritza lanetarako. Udalak, Tolomendik eta Fraisorok elkarlanean sustatu dute lehen sektorea.

**Tolosaldea****Alerten ederra**

Otsaila hasiera zuriz margotu zuen eguraldiak, Tolosaldean. Horrela, hila-beteko lehen asteburuak postal itxurako irudiak utzi zituen, kameren gozamenerako. Alerta laranja eman zuten elurragatik, eta askok justu-justu atera ahal izan zuten etxetik. Irudian, Urkizu.

Gaztelu**Aranalderen aurkako auzia, artxibatuta**

Jokin Aranalde astero pasa behar izaten zuen epailearen aurretik, euro-agindu bat medio. Besteak beste, Espainiatik ateratzeko debekua zuen. Artxibatzearekin, beraz, Frantzia preso duen alaba bisitatzeko aukera sortu zitzaion, besteak beste.



Construcciones y Promociones EPERGAIN, S. L.

IBARRA

ARANTZAZUKO AMA 10-12

- _ Bi eta hiru logelako etxebizitzak.
- _ Garaje itxiak.

VILLABONA -SALVADORA-

- _ Hiru logelako etxebizitzak.
- _ Garaje itxiak.
- _ Lokalak.



ALEGIA-BEISTIN



270.000 € + BEZ

**AZKEN ZATIA
PISUAREN PREZIOAN,
ETXEA**

231.390 € + BEZ



Emakumeen Nazioarteko Egunean bertan gertatu zen sexu erasoa. ATARIA

Sexu erasoa Villabonan

Martxoaren 8an, goizaldeko 05:45ean 19 urteko emakume bat bortxatzen ahalegindu ziren, Amasa-Villabonako Arroa auzoan.

Emakumeak aurre egin zion era-

sotzaileari, eta herritarrek ohartaraztea lortu zuen. Honen aurrean erasotzaileak ihes egin zuen.

Amasa-Villabonako Udalak deituta, elkarretaratze jendetsua egin

zuten Errebote plazan egunean bertan, eta, besteak beste, «pertsonak askatasunean heziko dituen hezkuntza» aldarrikatu zuten mobilizazioan.

Amasa-Villabona



Frankismoaren aztarnen memoria

Memoriaren asteak hartu zuen, martxoaren 24tik 31ra, Amasa-Villabona, Aritza kultur elkarteak antolatuta. Egitarau zabala irekiz, Aritza elkarteak berak aurrera eramandako lana aurkeztu zuten jendaurrean: *Frankismoaren aztarnak arakatzen II: egiazen minak* liburua. Esti Amenabarrok batera, Paco Etxeberria eta Xabier Urmeneta izan ziren Villabonako aurkezpen ekitaldian.

bertso ²⁰¹⁶ jaialdia



Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio,
Aitor Mendiluze, Unai Mendizabal **Gai jartzailea:** Amaia Agirre

Atarikideentzat 8€

Atarikide:

Egin zure erreserba urtarrilaren 8a bitarte.

Gehienez 2 sarrera bakoitzak.

Deitu edo idatzi: 943 65 56 95 edo atarikide@ataria.info

Sarrerak 10€

Urtarrilaren 9tik aurrera • Zehaztuko dira salmenta puntuak

Urtarrilak 23 • LARUNBATA

18:00_{etan}

Tolosako Leidor antzokian



Tolosa

Etxebizitza hutsak betetzeko neurriak

Hutsik zeuden etxebizitzak alokairuan jartzeko lehen egitasmo baten ondoren, Tolosako Udalak diru laguntzak ezarri zituen martxan, iaz, egoera txarrean zeuden etxebizitzetan eraberritzeak egitea ahalbidetu, eta gerora alokairu-merkatura ateratzeko. Jabe bakoitzari, gehieenez ere, 40.000 euroko diru laguntza eskaini zioten. Besteak beste, Tolosako etxebizitza parkeko 700 etxebizitza huts horiek betetzen hastea da egitasmoaren helburua.

Tolosa



Mobilizazio historikoa, publikotasun eske

Sindikatu guztiek bat egin zuten, lehen aldiz, Tolosalderako ospitale publiko bat eskatzeko. ELA, LAB, CCOO, UGT, SATSE, ESK, CGT ETA CNT sindikatuetakordez kariak elkartu ziren.

Orendain



Guztion Onerako Ekonomiaren alde

Orendain Guztion Onerako Ekonomiari aitindari izan da, herritarrek hala erabakita. Baloreetan oinarritutako politika egitearen aldeko hitzarmena sinatu zuten Gorka Egia Orendaingo alkateak eta Christian Felber GOE mugimenduaren sortzaileak.



IRIARTE
JATETXEA

- Eguneko menua
- Astebukaerako menua
- Karta
- Haragia eta arraina parrillan

Pedro Mari Otaño plaza, 1 • ZIZURKIL • 943 692 537

Berastegi

Korrikalari goiztiarrenak

Euskararen aldeko lasterketak esnatu zuen eskualdea, 05:33an iritsi zen Korrika Tolosaldera. Frontola buruan eta Gazte Festetan murgildurik egin zuten korri Berastegin. Elduain, Berrobi, Belauntza, Ibarra, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Aduña zeharkatu ziren larunbatean.



Tolosa

Agirre eta Sarasola, presente

Tolosa zeharkatzeko ibilbidean bi omenaldi berezi egin ziren, bi euskaltzaleri. Lehena, Lizardi elkartearen parean, Inaxio Agirreren alargunak eta bere lau bilobek lekukoa eraman zutenean. Eta bigarrena, Aldaba Txikin, jaiotetxearen aurrean, Aitziber Sarasolaren familiakoek lore sorta jaso zutenean.



Tolosaldea

19.ean,



Korrika igaro zen hemeretzigarrenez Tolosaldetik, martxoaren 21 eta 22an, asteburuarekin. Milaka irudi utzi zituen eskualdean, eta baita euskaltzaleen memorietan ere. Milaka euskaltzale batu zituen bidean Korrikak eskualdea zehartzeko orduan, Bilbora bidean. Amaia Goikoetxeak, Tolosaldeko koordinatzaileak korrikalari guztiak zoriondu eta eskerrak eman zizkien.

ko-rri-ka



Kilometro zehar egurrezko lekukoa eskuz igaro eta 383. kilometroan TOLOSALDEKO ATARIA-k mezua gordeta zeraian egur makila jaso zuen. Eskualdeko euskarazko komunikabideak harpidedunen artean zozketatu zuen lekukoa eramateko ohorea. Lorea Berastegik burutu zuen lana, Ander Azkue-rekin elkarbanatuta.

Ikaztegieta

Euskahaldunen azken geltokia

Eskualdean barrena bigarren eguna egin zuen Korrikak igandean, Bidania-Goiatzen sartu eta Albiztur-lehen aldiz jaso zuen euskararen lasterketa-, Olarrain eta Alegia zeharkatu zituen, Ikaztegieta azken pausoak eman aurretik.



Tolosa

Txikiak ere 'euskararen alde'

Korrikak eskualdea asteburuan zeharkatu behar zuela eta, aurretik beroketa lanak egin ziren. Herriz herri, Korrika Txikiak antolatu ziren. Ikasle, irakasle eta gurasoek zapatilak jantzi eta euskararen aldeko kilometroak korritu zituzten.





www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm



Behar zaitugu eta behar gaituzu!

**zure esku dago
egin zaitzez atarikide!**

**943 65 56 95
atarikide@ataria.info**



**Jarrai gaitzatzu
eman atsegin dut**



Orexa

Unsalu berrin bilduta zerbitzu guztiak

Orexako udal bulegoak, medikua-ren kontsulta, gizarte zerbitzuak eta udal artxiboa biltzen ditu Unsalu berri eraikin zaharberriak. Urtebetean aritu ziren lanean eta amaitutakoan herritarrei ateak zabaltu zizkieten, inaugurazio egunean. Hilerrian errautsak gordetzeko kutxak jarri zituzten, era berean.



Asteasu

Matxintxulo, ibilbide osasuntsua

Asteasuko ibilbide osasungarria inauguratu zuten. Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eta Osakidetza hartu zuten parte proiektu honetan. Eta herritarren iritzia ere hartu zituzten aintzako-tzat. 2,8 kilometroko luzera du ibilbideak. Lege Zaharren enparantzaren hasten da ibilbidea.

Amasa-Villabona

Ibilian, osasuna mantentzeko

Herrian zehar oinez ibiltzeko lau ibilbide prestatu dituzte Amasa-Villabonan. Santiago udal egoitzak, Salvadora jubilatuen etxeak, Olaserria kiroldegia, Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Matia fundazioak eta Uliazpi elkar-teak bat egin dute Udalarekin ekimena aurrera ateratzeko.



Tolosa

**Eraso sexistari erantzun jendetsua**

Apirilaren 12an emakume batek eraso sexista jasan zuen, etxera zihoala, eta oihuka hasi zelako alde egin zuen erasotzaileak. Bilgune Feministak deituta elkarre-

taratze jendetsua egin zuten Trianguloan. Tolosako epaitegia deklaratu zuen ustezko erasotzaileak, eta epaileak kartzelan sartzea erabaki zuen epaiketaren zain.

Zure Eguberrietako erosketek saria dute IBARRAN



Erosketa txeke

4x100€

Zozketa urtarrilak 11, 13:30etan.

*Aparkatzeko ordu beteko OTA txartelak
doan lortzeko aukera dendetan.*

Apirila

Ibarra




Alurrek 20 urte bete ditu

20 urte bete ditu aurten, Ibarako Alurr dantza taldeak. Helburua oinarri tradizionaletik abiatuta proiektu pertsonala egitea izan da beti. *Bi punturen artean* eta *Lanasabesak* emanaldiak aurkeztu ditu aurten.

Zizurkil

Gaztezulo berritua gazteentzat

Bi urtez itxita egon ondoren, Atxulondo kultur etxearen behealdean, Gaztezulo berria zabaldu zuten apirilean. Bederatzi eta 17 urte bitarteko gaztetxoak bertan biltzen dira, astartetik larunbatera, dagokien ordutegian, eta lxaxkun Sarasola da bertako hezitzailea.



Tolosa

Amalur jardunaldiek hamar urte

Amalur Jardunaldiak hamar urtez aritu dira bidaiatzeko ametsari eragiten. Entzuleek berriz, Topic-eko eserlekuetan eseri eta irudimena aske uzteko eginbeharra izan dute ediziotik ediziora. 2006n hasita, urtetik urtera kultura edota txoko bat aukeratu dute antolatzaileak eta hori aitzakia hartuta goi mailako hizlariak izan dira Tolosan paraje horien berri emanez.

Tolosa

Emakumeen Eguna irudikaturik

Targazki elkarteak argazki erakusketa bat jarri zuen Zerkausion ikusgai. Jatotri ezberdineko emakumeak euren egitekoetan, euren egunerokotasunean murgildurik azaltzen ziren argazkietan. Honela, Tolosaldea anitz baten isla aurkeztu nahi izan zuen Targazkik. Hona-koa Tolosaldeko argazkilari amateurren elkarte da.



Tolosaldea

Furgobaratzaren hileroko bisita

Duela lau urte Kutxa Ekoguneak Baratz Parkea Sarea egitasmoa jarri zuen martxan. Alegian, Anoetan eta Tolosan dauden parkeak sarean txertatuta daude. Apiriletik zerbitzu berri bat jasotzen dute: Furgobaratza. Hilean behin joaten da baratzetara eta interesa duten herri-tarren partzeletara gerturatzen da teknikaria. Zalantzak argitzeaz gain, arazoei konponbidea ere proposatzen die.

2015a hauteskunde urtea izan da. Batetik, maiatzean udal eta foru hauteskundeak egin ziren, eta abenduan, Eguberrien atarian Espainiako Gorteetarako eta Senaturakoak

Abaltzisketa

Zubizarretaren zerrenda garaile

Beste behin, Herritarren zerrenda garaile izan zen Abaltzisketan, Jon Zubizarreta buru izanik. «Aparteko sobresaltorik» gabe, berak aitortu zuen bezala, 140 boto eskuratu zituen bigarren legealdia osatu ahal izateko. 12 boto zuri ere izan ziren eta PPK boto bat jaso zuen.

Aduna

Josu Amilibia, berriro alkate

EH Bilduk 205 boto jaso zituen maiatzean egindako hauteskundeetan eta alkate berrizendatuaren asmoa «parte hartzea sustatu nahi duen udal moduan sakontzen» jarraitzea dela adierazi zuen. PP alderdiak Adunan 8 zortzi boto jaso zituen

Alegia

Iraola, «gobernatzeko legitimatuta»

EH Bilduko Unai Iraolak alkatetza berretsi zuen maiatzeko hauteskundeetan. EH Bilduk 6 hautetsi eskuratu zituen (456 boto), EAJk 3 hautetsi (278 boto) eta PP eta PSE-EE hautetsirik gabe geratu ziren, 24 eta 10 boto lortuz alderdi bakoitzak, hurrenez hurren.

Alkiza

Umerezek herritarren babesa jaso zuen

Alkizako Abertzale Ezkertiarek 145 boto jaso zituzten maiatzean. Horrenbestez, Jon Umerezek maiatzetik aurrera bete zituen alkate lanak. Gainera, Alkizan, boto zuriak erdira jaitsi zirenez, alkatea «pozik» azaldu zen jasotako emaitzekin.



Altzo

Joseba Elduaian, Altzoko alkate

EH Bilduk eskuratu zuen Altzoko alkatetza. Alkate berria du herriak maiatzetik hona: Joseba Elduaian, Miren Balerdi alderdikideak pasa zion aginte makilaren testigua. 169 botorekin izendatu zuten alkate berria Altzon.

Amasa-Villabona

EAJk EH Bilduri, alkatetza kendu

Zinegotzi kopuruan (6) berdinduta gelditu baziren ere, alderdi jeltzaleak boto gehiago eskuratu zituen (1.287). EH Bilduk jaso zituen botoak 1.129 izan ziren. EAJren zerrendaburua, Iban Agirre da maiatzetik alkate berria Amasa-Villabonan.



Amezketeta

Iñaki Amundarainek eutsi zion

EH Bilduko Iñaki Amundarainek beste lau urtetarako agintea lortu zuen maiatzean, herritarrek horrela erabakita. Koalizio abertzaleak 5 hautetsi eskuratu zituen (308 boto), atzetik Amezketeta Auzolanean zerrenda izan zuten, 2 hautetsi lortuz (128 boto).

Anoeta

EH Bilduren alde, herritarren gehiengo

2011tik botoetan behera egin bazuen ere EH Bilduk (509) bost hautetsirekin alkatetza eskuratu zuen Pello Estangak, alkatetza errepikatu. Azken hauteskundeekin alderatuta, EAJk 302 boto irabazi zituen maiatzeko hauteskundeetan, guztira 444 boto lortuz (4 hautetsi).

Asteasu

Asteasu Batuz, gehiengo osoa

Asteasu Batuz hautagaitzak gehiengo osoa berritu zuen maiatzean. Guztira 7 hautetsi lortu zituen Pili Legarrak gidatutako taldeak (468), atzetik EAJ kokatu zen, bi zinegotzirekin (184). Abstentzioak hamar puntutan gora egin zuen aurreko hauteskundeekin alderatuta.

Albztur

Irailera bitarteko ibilbidea



Maiatzeko hauteskundeetan PSE-EEK eskuratu zuen alkatetza 13 botorekin, aurrean 157 boto zuri izan ziren, alkatetza hori ekidin nahian. Boto zurien kanpaina aurrera eraman zuten gazte elkartekoek, herritarren zerrendarik ez zegoelako, baina ez zuten boto zuri nahikorik eskuratu: PSE-EEK eta PPK boto baliagarrien %5a ez lortzea zen helburua.

PSE-EEK alkatetza eskuratu bazuen ere, ekainaren 10ean jakinarazi zuen alkatetza horri uko egiten ziola. Abuztuaren 24a bitarte luzatu ziren udalari buruzko albiste berriak: herritarrez osatutako talde batek babestuko zuela udal gestora jakinarazi zuten, irailean lanean hasiko zena. Azkenik, irailaren 16an, Carlos Ugartemendia, Albizturgo Batzorde Kudeatzaileko lehendakari izendatu zuten.

Berrobi

Aierza alkate izendatuta, berriro

EH Bildu eta PSE-EE bakarrik zeuden aukeran Berrobin. Garaipena erabatekoa izan zen alderdi abertzalearentzat, zazpi hautetsiak eskuratu (223). Alderdi sozialak sei herritarren babesas jaso zuen.

Bidania-Goiatz

EH Bildurentzat izan zen alkatetza

Joxe Erramun Goikoetxea lau urte gehiagor Bidania-Goiatzeko alkate aukeratu zuten herritarrek, 175 botorekin. Atzetik Garai Berriak plataformak 106 boto poltsikoratu zituen.



Belauntza

Mariano Lazkanok errepikatu zuen

Belauntzan Denok Batek jaso zituen botorik gehien (88) eta atzetik Gazteak Aurrera izanik (68). PSE-EEren zerrenda Belauntzan aurkeztu bazen ere ez zuen botorik eskuratu. Hautetsi kopurua aurreko legegaldaren kopuru berdinetan mantendu da: Denok Batek lau hautetsi eta Gazteak Aurrerak hiru hautetsi. Lazkanok ikasitakoa gazteei erakusteko erronka hartu zuen.

Berastegi

EH Bildurentzat sei hautetsi

EH Bildu koalizioak sei hautetsiren (325 boto) jabe egin zen maiatzeko udal hauteskundeetan, EAJk (146), ordea, hiru lortu zituen. Amaia Azkue alkateak datuak ezagutzerakoan lantaldearen esperientzia goraipatu zuen: «Sei hautetsietatik bost lehenagotik aritutakoak gara».



Baliarrain



Abendua bitarteko bidea

Maiatzeko hauteskundeetan hautetsontzi bakarra izan zen Baliarrainen, foru hauteskundeetarakoa. Izan ere, udalerako zerrendarik ez zen herrian aurkeztu. Abendua bitarte herrian prozesu luzea burutu ostean Herriarrak izenarekin aurkeztu zen zerrenda, abenduaren 20rako hautagaitza. Abenduan herritarren babesarekin, Martzelino Dorronsorok, 20 urtez alkate izandakoak lekukoa pasa zion Olatz Iriarteri.

Tolosa



Alkatetza aldaketa

EAJk datu historikoak eskuratuta, EH Bilduk alkatetza galdu zuen. Ibai Iriartek aginte makila Olatz Peoni pasa zion. EAJk 4.723 boto eskuratuta 9 hautetsiren jabe egin zen, eta EH Bildu 3.779ekin 7rena. PSE-EEk emandako 637 botoek Jose Ignacio Asensio zinegotzi bezala mantendu zuten.

Ibarra

Garaipen estua, EH Bildurentzat

Emaitzak eskuan alkatetza errepikatzea erdietsi zuen koalizioak maiatzean. Mikel Agirrezabalak alkate kargua hartuko zuen Jesus Peñagarikano alderdikidearen eskutik, «lehia uste baino estuagoa» egonik. Sei hautetsi lortu zituen EH Bilduk eta EAJk bost, 941 eta 882 botorekin, hurrenez hurren. PSE-EEk 153 boto eta PPk 42 lortu zituzten.



Gaztelu

Gari Aranzabal, alkate izendatuta

EH Bilduk 57 boto lortu zituen Gaztelun eta Udaberri Taldeak berriz, 37. PPk ere zerrenda aurkeztu zuen herrian. Udalbatzaren lau hautetsi EH Bildurentzat egokitu ziren bozketaren ondorio eta Udaberri Taldearentzat bakarra. Abstentzioa %22koa izan zen.

Ikaztegieta

Bakarne Otegi, Ikaztegieta alkate

Ikaztegieta EH Bilduko alkate berria aukeratu zuen maiatzeko hauteskundeetan, Iker Otamendi alderdikideak pasa zion testigua. EH Bilduk 130 boto lortu zituen eta EAJk berriz 110. Herritarren parte hartzea %69,20koa izan zen udal hauteskundeetan.

Irura

EAJ lehen indarra, boto gorakadarekin

Gehiengo osoa erdietsi zuen EAJk Iruran bost zinegotzi eskuratuta. Atzetik, EH Bildu kokatu zen gainontzeko lau hautetsiak berarentzat lortuta. 419 herritarrek eman zioten botoa EAJri eta 315ek EH Bilduri. EH Bilduk zinegotzi kopurua erdira jaitsi zuen aurreko legealdetik alderatuta. Ana Jesus Leunda da Irurako alkatea maiatzeko hauteskundeetan horrela erabakita.



Hernialde

Igaro Baldaren hirugarrena

Hirugarren legealdia du Igaro Baldak bizkarrean maiatzeko hauteskundeetako emaitzen ondorioz. Hernialdeko Herritarrek zerrenda bizilagunek bozkatzeko zuten aukera bakarra zen eta 128 boto jaso zituen.

Larraul

Aneli Urbieta, Larraulgo alkate

Larraulgo Herritarrek zerrendak sei zinegotzi lortu zituen eta PSE-EEk bat. 69 boto eskuratu zituen Urbietaren zerrendak eta alderdi sozialistak 12 herritarren babesa erdietsi zuen. Xabi Mujikak emango zion testigua alkate berriari.



Leaburu-Txarama


Garaipen estua, EH Bildurentzat

Leaburu-Txaraman EH Bilduk lortu zituen botorik gehien, 109 eta Bide Berriak plataformak 94. Zazpi hautetsietatik lau izan ziren EH Bildurentzat eta gainontzeko hirurak Bide Berriarentzat. Luisa Uzkudunek errepikatu zuen alkate moduan Leaburu-Txaraman. «Pozik» jaso zuen zerrendaburuak herritarrek emandako babesa.

Lizartza

Leire Gordorentzat Lizartzako alkatetza

EH Bilduk 240 boto lortu zituen eta PPK 12. EH Bildu eta PP ziren Lizartzako aukera bakarrak eta koalizio abertzaleak eskuratu zituen botorik gehien maiatzeko hauteskundeetan, 240 boto, hain zuzen. Leire Gordok alkate izango zela jakin zutenean pozik azaldu zen: «Euskaraz jarraitu ahal izango dugu lanean», zazpi hautetsiak eurentzat zirelako.



Zizurkil

EH Bilduk alkatetzari eutsi zion

Maiatzeko hauteskudeen emaitzek balioetsita Juan Mari Luengok jarraituko zuen Zizurkilgo alkate lanean. Lehen indarra EH Bildu izan zen, 736 boto eta sei hautetsi erdie-tsita. EAJ alderdiak berriz 596 boto-rekin lau hautetsi eskuratu zituen. PSE-EEk ere zinegotzi bat izango du Zizurkilgo Udalean maiatzaz geroztik, Jose Antonio Sanchez, 124 boto-rekin.

Elduain

Jose Angel Urkizu, Elduaingo alkate

EH Bildu soilik aurkeztu zen Elduainen, eta herri txikietan egiten den bezala eroldako 180 bizilagunek pertsonak aukeratu zituzten. Jose Angel Urkizu 48 botorekin alkate izendatuko zen. EH Bilduk, herriko bost zinegotzien jabe egin zen maiatzeko hauteskundeetan.

Orendain

Gorka Egi, beste lau urtez alkate

82 botorekin Gorka Egiak alkate-tzan jarraitzea erabaki zuten oreindarrek maiatzean bozkatzera joan zirenean. Orendaingo hautetsontzietan Egiari zuzendutako botoez gain, 22 boto zuri ere zenbatu ziren. Abstentzioa Orendainen %21,83an kokatu zen.



Orexa

EH Bilduk jaso zuen orexarren babesa

EH Bildu bakarrik aurkeztu zen udal hauteskundeetan eta herritarrek babesa erakutsi zioten alderdi abertzaleari. Botoa emateko eskubidea duten 90 bizilagunetatik 74k eman zioten botoa koalizioari. Honela, Eneko Maiozek lau urte gehiagoz Orexako alkate izaten jarraitzea lortu zuen.

Abenduak 20



Pastela geroz eta banatuago


Espainiako Gorteetarako eta Senaturako hauteskundeak egin ziren abenduaren 20an. Podemos (5.178 boto) eskualdeko hirugarren indar gisa kokatu zen, EH Bildu (7.778) eta EAJren (6.595) atzetik.



San Bartolome, 2.
Ibarrako plaza
Tel.: 943 67 11 38
Faxa: 943 68 38 52

Falta
direnak
gogoan,
Urte berri
on!!!!!!





Asteasu

1534. urteko ordenantza artxiboan

1534. urteko ordenantza topatu dute artxibo historikoan; gordetzen den zaharrena da. Ondo zainduta dago Asteasuko artxibo historikoa eta Ereiten enpresatik mantenu lanak egiten dituzte. Dokumentua, 35 foliotako liburuxka da eta bertan 81 lege lantzen dira. Artxibo garrantzitsu asko topatu dituzte Asteasun.



Leaburu-Txarama

Araxes paper fabrikari lotuta

Aranzadi Zientzia Elkarteko Juantxo Agirre Mauleon eta Aratz Garmendia historialariek Txaramako historiaren berri eman zuten hitzaldi batean. Txaramako azken 200 urtetako historiaren berri eman zuten. Araxes paper fabrika XIX. mende bukaeran ireki zuten eta guztiz markatu zuen Txaramako etorkizuna. 90eko hamarkadan itxi zuten.

Amasa-Villabona

'Tximeletak', Lainak disko berria

Apirilaren amaieran Donostiako Koldo Mintxelena kulturgunean aurkeztu zuen Lain taldeak Tximeletak izeneko disko berria, hirugarrena. Maiatzean diskoa aurkezteko lehen kontzertua eman zuten Bonberenean.



Amasa-Villabona

Onddok mende laurdena bete du

Onddo Gazte Asanbladak 25 urte bete zituen maiatzean, eta hilabete osoan zehar urtemuga ospatzeko ekitaldi ugari izan zituzten. Egun Errebote plazaren ondoan du egun egoitza asanbladak.

Zizurkil

Udala eta Zubimusu, ados

Hiru urteko elkarriketen ondoren, Zubimusu Ikastolak eta Zizurkilgo Udalak 2019 urtera arte indarrean egongo den hitzarmena adostu zuten. Ikastolaren lana aitortu nahi izan zuen udalak hitzarmenarekin.

Oparitarako ideiarik behar?



Informa zaitez: 943 65 56 95 edo atarikide@ataria.info

autoa? animaliak? eskola? altzariak? pentsua? zapatak?
ileapaindegia? tailerra? optika? jatetxea? albaitaria?
igeltseroa? opariak? inprenta? masajista?...

Topatu behar duzuna!



www.ataria.info



Tolosa



Eraso arrazisten salaketa

Aljeriar jatorriko tolosarra den Khelifa Tadjinek eraso arrazistak salatu zituen maiatzaren 3an; treneko segurtasun zaintzaileek eraso zutela salatu zuen. Salaketak jarri zituen Tolosako epaitegian eta udaltzaingean, mediku agiriekin. Gertakariak salatzeke ehun pertsona inguruk elkarretaratzea egin zuten herritarren, SOS Arrazakeriaren eta Jatorkinen babesarekin.

Zizurkil

Mikel Egibar aske geratu da

Mikel Egibar aske geratu zen maiatzaren 19an. 2007an, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz atxilotu zuten, 18/98 auziaren barruan. Egibar herriko plazan herritarrez inguratutik zegoela eraman zuten atxiloturik. Azken urtean Zuerako espetxean, Zaragozan, egon zen. Irten zen egunean bertan herritarrek harrera egin zioten.



Leaburu-Txarama

Herriari eskainitako zuhaitz genealogikoa

Duela 34 urtetik Ameriketako Estatu Batuetan bizi den Iñaki Otegi leaburuarak 3.000 sarrera inguru dituen zuhaitz genealogikoa osatu du. 900 sarrera biltzen ditu maiatzetik Ostatuan kokatuta dagoen eta herriko familia eta baserri nagusiak lotzen dituen zuhaitzak.



Ibarra

Ibarluzea atxilotuta Operación Arañan

Maiatzaren 19an Iker Ibarluzea ibartarra atxilotu zuen Guardia Zibila, Tolosan. *Operación Araña III* delakoaren barnean, «terrorismoa goratzea» leporatuta eraman zuten Intxaurrendora, eta deklaratzeari uko egin ostean, aske utzi zuten arratsaldean. Arratsaldean Ibarra-ko plazan egin zuten batzar informatiboan herritar ugari elkartu zen Ibarluzeari babesa emateko.



Anoeta

400 urteak ospatzeko emanaldia

Aurten 400 urte betetzen dira Anoeta Tolosarengandik banatu eta hiribildu titulua eskuratu zuela. Data hori buruan zuela Anitz dantza taldeak *Ura dantzan* emanaldia prestatu eta eskaini zuen. 60 pertsonatik gora aritu ziren ohol-tza gainean.

herriarentzat, lan herritarrekin, euskaraz



AMASA-VILLABONA



Villabonako Udala

Gaztelu

Jolastokia festa giroan inauguratuta

Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartek, Txispiri guraso elkarteak eta Gazteluko Udalak elkarlanean burutu zuten festa, baita jolastokia ere. «Duela bi urte argi esan genuen egoera ekonomiko kaxkarrak ezin zuela baldintzatu herrian jolastokia izatea», azaldu zuten festaren antolatzaileek. Hori dela eta, herritar talde batek jolastokia eraikitzeke aldura ekonomikoa beregain hartu zuten.



Orexa

Ezcutuko ondarea, begi-bistan

Orexak badu urteetan ezcutuan egon den altxorrik. Lizartzatik Orexara bidean, Basabera joateko kartel 'dotorea' jarraituta iristen da hara, eta Burdina taldekoen eta herritarren lanari esker garbitu eta utzi dute agerian: zentral hidroelektrikoa. Basabe inguruko zentral hidroelektrikoa XX. mendeko lehen laurdenean sortu zuten, 1930. urte inguruan.

Tolosaldea

'Herrikoak' konfiskatzeko erabakia, berretsita

Espainiako Auzitegi Nazionalak 35/02 sumarioaren inguruko epaia 2014ko uztailan eman zuen, eta 2015eko ekainean berretsi egin zuen Auzitegi Gorenak. Bertan 103 herriko konfiskatzeko agindu zuen, «ETaren egitura» finantzatzeagatik. Tartean daude Tolosako Intxurre, Ibarako Subegi eta Amasa-Villabonako Iratzar. Epaiauren aurkako protestak izan ziren eskualdean.



Ibarra

Estalpea, inauguratuta

Ibarako Udalak San Joan bezpera eguna aukeratu zuen plazako estalpe berria inauguratzeko. Herritar ugari gerturatu zen ekitaldira eta herriko koruak emanaldira bat eskaini zuen. Parte hartze prozesu baten bitartez, herritarrek aukeratua izan zen eraikitako estalpea.



Zizurkil

Lehenengo jardunaldi feministak herrian


Aizan talde feministak antolatuta, Zizurkilgo I. Jardunaldi Feministak egin zituzten. Besteak beste, kontzeptuak argitzeko baliatu zituzten jardunaldiak antolatzaileek: «Oinarri bat eskaini nahi dugu eta feminismoa, matxismoa, henbrismoa edo patriarkatua zer diren azaldu». Aiztondoko 15 bat neskek hartzen dute parte Aizan talde feministan, guztiak 20 urtetik beherakoak.



Amezketeta

Azken 400 urteak bi ikuspegitatik

Joxe Mari Oterminek idatziak diren, Amezketako historiari buruzko bi liburuk argitaratu ditu udalak, hiribildu izendatu zeneko 400. urteurrenean: *Amezketeta urteen joanean 1615-2015* eta *Amezketeta, nor da nor, 1615-2015*.



Alegiako
Udala

**ATARIA ETA BERRIA
LEITUZ
EUSKARAZ
ILUSTRATU GAITEZEN**

Tel.: 943 65 30 16

Tel.: 943 65 10 87

Faxa: 943 65 48 15

alegia@udal.gipuzkoa.net



Tolosa

Kuadrilla Egunak 25 urte bete ditu

Tolosako sanjoanetakoko egun berezietako batek 25 urte bete ditu aurten: Kuadrilla Egunak. Ekimenaren bultzatzaileek bota zuten San Joan jaien hasierako txupinazoa, eta Tolosako kaleak kolorez bete ziren beste behin Kuadrilla Egunean.

Tolosaldea



Erabakitzeko eskubidearen alde

Milaka herritar izan ziren Gure Esku Dago ekimenak Anoeta estadioan antolatutako festan, tartean Tolosaldetik joandakoak. Eskualdeko Gure Esku Dago-tik «eskualdeko espektatibak bete» zirela azaldu zuten. Aurrera begira jende gehiago erakartzea dute erronka.



Tolosa

Tenpora eta Klean, lehen diskoarekin

Tenpora taldeak *Mundu berria* izeneko diskoa aurkeztu zuen, euren ibilbidean «lehenengo mugarrira» jarritik. Tolosan eskaini zuten birako lehen zuzenekoak. Tolosako Klean txarangak 11 abestiz osaturiko lehen lana atera zuen, *Tolosan* izenekoak. Iruñeko San Fermin jaietan, Maisonave hotelak antolatzen duen txaranga lehiaketa irabazi ondorengo saria izan zen.



Tolosa

Akordeoi Orkestrak 35 urte bete ditu

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak erronka berezia taularatu nahi izan zuen, baita erronka gainditu ere. Taldearen 35. urteurrena ospatzeko emanaldi berezia eskaini zuten Euskal Herria plazan: *Bizipenen Hauspoa*.



Tolosa

Karlos Linazasoro idazlearen hiztegia

Literatura hiztegi tekniko laburra liburua argitaratu zuen Karlos Linazasorok. Urtetan onduriako sorkuntza lanen bilduma da; ziklo bat itxiko zuen itxaropenez prestatu zuen liburua, baina sormen oparoa du oraindik idazle tolosarrak. Bere obra «totala» sortuta, datorren urterako lan berezi bat prestatzea du helburu, *Eldarnioak* liburuaren 25. urteurrena nolabait ospatzeko.

Uztaila

Tolosa

Azoukay eta Guennai, omenduak

Oumaima Azoukay eta Dina Guennai omendu zituen Jatorkin elkarteak, Tolosaldean batxilergoa euskaraz amaitu duten lehen bi marokoar emakumezkoak izateagatik. Bi omenduek azaldu zuten, «ez dugu inor goretsi nahi, etorkinen arrakasta akademikoa sustatu nahi dugu».



Aduna, Asteasu, Zizurkil

Saseta: defentsa sistema eredugarria

Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalek eta Aranzadik antolatutako auzolandegietan Saseta defentsa sistema aztertu eta berreskuratuz jarraitu dute aurten, dozena bat gaztek. Zarateko Haitza ingurua garbitu dute ere. Horrez gain, Pagotan egindako idazkunak ere topatu dituzte.



Alkiza


Baserri-paisaiak balioan jartzeko

Tolosaldea Tourrek seinalatzatua zuen bide bat baliatuz, ibilbidea osatu dute Alkizako baserri-paisaia bisitatu eta horren inguruko gogoei bultzatzeko. Tolomendik eta Alkizako Udalak jarri zuten martxan ekimena.

Tolosaldea

Antzinako euskal musika, gaur egunera

Antzinako musika gaur egunera moldatuz, hainbat artisten talentua biltzen du *Euskal Antiqua* diskoak, tartean eskualdekoak: Miren Zeberio, Miguel Zeberio, Leire Berasaluze eta Xabier Leturia. Euskal Barrokensemble taldeak argitaratu du, Enrike Solinisen zuzendaritzapean.



Tolosa

Berazubiko bigarren fasea biribildu dute

2014. urtea amaitzerako lizitazioa egin zuen, Tolosako Udalak, Berazubiko estadioko obren bigarren fasea osatzeko. Uztailean, sei hilabete inguruko lanen ondoren, proiektuaren erdia osatu zuten jada, kirol gunea erabat itxuraldatuz. Guztira 775.771 euroko aurrekontua erabili zuten lan horiek aurrera eramateko.



Zizurkil

Ez dute eraso matxistarik onartzen

Emakume batek jasandako erasoari erantzuteko 200 herritar baino gehiago bildu ziren Joxe Arregi plazan. Ez dutela eraso bakar bat gehiago onartuko adierazi zuten Zizurkilgo udal ordezkariak elkarretaratzearen amaieran.

Amasa-Villabona

Remi Ayestaranen omenaldiaren afera

Remi Ayestarani urtero uztaillaren 31n egiten zaion omenaldia Santio jaien egitarautik kentzeko erabakia «aldebakarrez, inori ezer esan gabe, jai batzordean onartutakoa- ren kontra eta alkate dekretuz» har- tu zela salatu zuen Remi Gogoan herri ekimenak. Omenaldiaren gaia jorratu zen osoko bilkuran herritar ugari izan ziren eta tentsio handi- koa izan zen.



Anoeta

Iragana, adineko emakumeen ahotan

Anoetako Udalak herriko adineko pertsonen testigantzak jasotzeko proiektua abiatu du. Nekane Peña- garikano herriko kazetariak zortzi lagun jarri zituen kontu kontari, zaz- pi emakume eta gizonezko bat, 72 eta 92 urte artekoak. Oraingoz, ordu erdira ekarri dituzte egindako grabazioak, eta ikus-entzunezko bat osatu dute. Aurrera begira ere egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dute.



Tolosa

Eleberri batean, bi boxeolariren bizitzak

Perlak, kolpeak, musuak, traizioak du izena Joxe Mari Iturralde idazle tolosarraren azken eleberriak, eta hain zuzen ere, bi boxeolarik, Pauli- no Uzkudun erreizildarrak eta Isido- ro Gaztañaga ibartarrak, euren bizi- tzan ezagutu zituzten arlo guzti ho- rieiei buruz hitz egiten du nobela horretan Iturraldek.



Asteasu

Urzuriagako karobia berreskuratu dute

Burdina Taldeak Urzuriagako karo- bia berreskuratu du, Asteasuko on- dare historikoaren berreskurape- nean beste pauso bat emanez. Da- torren urtera begira beste ondare bat berreskuratzeko proposamena egiteko asmoa azaldu zuen.

Bidania-Goiatz

Aurkikuntza garrantzitsuak aurten ere Sanpedroburun

IX. mendearen aurrekoak izan dai- tezkeen hilobiak topatu dituzte Sanpedroburun dagoen aztarnate- gian. Datazioak IX. mende aurreko- ak direla azalduz gero, Gipuzkoan topatu den hilerri zaharrenetakoa izango zen.



Bidania-Goiatz

Sayaz Elkarteak 25. urteurrena ospatu du

Bidania-Goiazko Sayaz elkartearen mende laurdena ospatu zuten uz- tailean, bazkide guztiak mahaiaren bueltan elkartuta. Ilusioz ekindako bideak pilota elkartea nahiz hain- bat kultur jarduera utzi ditu bidean. Badira soka luzatzeko gazteak ere.



www.berezitallasespeciales.net

Berezitallasespeciales 

Berezi

44-64
neurriak

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda

Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965



Plaza Etxeberri
J A T E T X E A

Pedro Mari Otaño Plaza

943 69 19 36

Zizurkil



astelehenetik

larunbatera...

 **eguneko menua** 

*bertakoa, freskoa
eta garaikoa*

www.plazaetxeberri.com

Ibarra



Festen txupinazoa bertan behera

Jaien hasierako suziria Ibarako errepresaliatu politikoen senide eta lagunek botako zutela zegoen iragarrita jai egitarauan eta hori «biktimekiko irain ekintza» bat da, Urkijoren ustetan. Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren abisua iritsi zen udalera eta txupinazoa bertan behera uzteko eskaera egin zuen. Erantzun gisa, Ibarako festa batzordeak agerraldi jendetsua egin zuen plazan.



Tolosa

GHK-ko lehendakari, Jose Ignazio Asensio

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu izendatu zuten ekainean, Tolosako zinegotzi ere baden PSE-EE alderdiko Jose Ignacio Asensio. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatu tolosarrak, ordea, abuztuan hartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari postua.



Aduna

Hidronor enpresa botatzen hasi ziren

Adunara igotzeko bidegurutzean kokatu zegoen Hidronor enpresa botatzeko lanak hasi zituzten abuztuko azken astean.

Tolosa



Su boleak argitutako agurra


Tolosan agur festa egin zieten Saharatik Tolosaldera oporrak pasatzera etorri ziren 19 haurrei. Oporrak bakean ekimenaren barruan abuztuaren 22an, arratsaldetik gauera arte luzatu ziren ekitaldiak, eta *Desioak sutan* izeneko ekimenaren barruan, su bolak jaurti zituzten Zerkausian.

Abuztua

Aurten lehen aldiz abuztuko jaiei jarraipen berezia egin die webgunean 'Tolosaldeko Ataria'-k. Festetako argazki eta bideo ugari egon dira ikusgai. Jarraian bilduma bat. Datorren urtean ere bide beretik jarraituko du.



LARRAUL



BERASTEGI



IKAZTEGIETA



ADUNA



ZIZURKIL



BIDANIA-GOIAITZ

Abuztua



HERNIALDE



ORENDAIN



BALIARRAIN



GAZTELU



ALBIZTUR



IBARRA



AMEZKETA



BERROBI

Iraila

Tolosa

50. urteurren festak Berazubi auzoan

1965eko irailaren 9a zen, Martin Jose Iraola kalea inguratzen duten etxebizitzak dozenaka familiaren aterpe goxo bilakatu zirenean. Etxe zuriak 1957az geroztik eraikiak ziren arren, etxebizitza berriak Berazubiren auzo izaera birbildu zuten, duela 50 urte. Hori ospatzeko aste-beteko festa izan zuten auzoan.



Amezketeta

Amezketaren aldeko epaia, akten aferan

Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak Amezketako eta Gaintzako udalen aldeko epaiak argitaratu eman zituen, Espainiak EAEn duen Gobernu Ordezkaritzak egin-dako errekerimenduen harira. Udalek euskara hutsean aritzeko eskubidea dutela nabarmentzen zuen epaiak.

Tolosa

Bizipoza aldarrikatuz, festa erraldoia

Irailaren 27an Bizipozaren jaia ospatu zen Tolosan, Irrien Lagunak elkarteak antolatuta. Jaialdiaren bosgarren urteurrena zen eta piratez bete zen Alondegia Plaza egun osoan zehar, Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazoeekin batera festa giroaz gozatzeko. Hainbat elkarte ere hartu zuten parte.



Tolosa



'Hondarribia Berdintasunaren Hiria' saria, Udaberriri

Udaberri Dantza Taldeak, Donostiako Kresala elkarteak eta Zumarragako Irrintzi taldeak Hondarribia Berdintasunaren Hiria saria jaso zuten Jaizkibel Konpainiaren esku-

tik. Saria emakumeen parte hartzea festetan tradizioa aldatu gabe, gatazka handirik gabe eta erakundeen laguntzaz ahalbidetu duten ekintza positiboentzat da.

Altzo



Altzoko Handia, taula gainera

Irailaren 12an egin zuten Donostia 2016 eta Topic zentroak elkarlanean prestatu zuten Altzoko Handia txotxongilo operaren aurrestreinaldia Tolosan. Estreinaldi ofiziala, Charleville-Mezieres-en egin zuten.

Tolosa

Jexux Mari Zalakain, etxean

Zortzi urteko espetxealdiaren ondoren, irailaren 27an irten zen Dueñaseko kartzelatik. 18/98 auzian, Egin egunkariaren aurkakoa zegoen epaitua. Han bertan zain zituen senide eta lagunak eta ondoren bizileku duen Santutxun harrera beroa egin zioten.



Tolosa

Hizkuntz eskubideak, urratuta

Herritar batek salatu zuenez, Tolosako Udalak «gaztelera hutsez» eskaini zuen bilera bat Bidebieta auzoan. «Hizkuntza eskubideen urratzea» salatu zuen Twitter bidezko mezu batean. Jokin Azkue zinegotziak, berriz, ukatu egin zuen: «Han ez zen hori gertatu eta ekarpen asko euskaraz egin ziren». Behatokiak «ageri-ageriko urraketa» izan zela nabarmendu zuen.

Amasa-Villabona

Uholdeak ekiditeko lanak, martxan

2011ko uholdeen harira, presazko hainbat neurri hartu zituen URA agentziak Oria ibaiaren hainbat puntutan. Irailean, berriz, lanak abiatu zituzten Villabona eta Zizurkil artean, erabateko soluzioa emateko. Lehen faseko lanak hasi ziren irailean, eta Zubimusu zabalteaz gain, uholdeak ekiditeko harri-lubeta bat jarri zuten.



Amasa-Villabona

Olarraren aurkako sumarioa, artxibatuta

2014ko azaroaren 6an irten zen espetxetik zortzi urte eta erdiren ondoren. Hurrengo egunean harrera egin zioten Amasa-Villabonan eta bertan esandako batzuen harira, «terrorismoa gortzea» leporatuta inputatu egin zuen Auzitegi Nazionalak. Apirilean deklaratu zuen epailearen aurrean, baina irailean «lege urraketa ez» dagoela ondorioztatu zuen Andreu epaileak.

Urria

Ibarra

Aimar Odriozola Aurreku txapelkun

Euskadiko XXXV. Gipuzkoar Aurreku txapelketa jokatu zen urriaren 3an, Pasai Antxon, eta Aimar Odriozola ibartarra izan zen txapelduna. Ibarako Udalean dago irabazitako trofeoa, eta udalak eta herritarrek omenalditxo bat ere egin zioten, Odriozolari eta Iñaki Agirre Alurr dantza taldeko irakasleari.



Amasa-Villabona

400 urte Amasa Tolosatik banandua

Tolosatik banandu zela 400 urte bete dira aurten. Urriaren 24an, bete ziren, hain justu, eta urteurrena gogoan, emanaldi berezia prestatu zuten. 100 herritar inguruk parte hartu zuten banaketa hori irudikatu zuten antzezlanean.



Berastegi

Amaia Azkue Uemako zuzendaritzan

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) urriaren 3an egin zuen, Azpeitian, agintaldi berriari ekiteko batzarra eta aho batez onartu zuten zuzendaritza batzorde berria. Batzordeko kide da Amaia Azkue, Berastegiko alkatea.



Amasa-Villabona

Ikur frankistak ezabatzeke eskaria

Aritza kultur elkarteak Amasa-Villabonan dagoen sinbologia frankista katalogatu eta identifikatu du. 15 ikur dira orotara, guztiak, etxe atarietan daude, eta horiek ezabatzeke eskatu dio udalari.

Tolosaldea

Istripuak Albizturren eta Belauntzan

Albizturko Santutxo bidegurutzetik gertu gizonetako bat hil zen zuhaitz bat gainera erorita urriaren 13an. Belauntzan, berriz, urriaren 7an egurra mozten ari zen gizonetako bat hil zen, enborrak gainera erorita.

MATXINA

Etxekotresna elektrikoek konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34



Amasa-Villabona

Lierni Kamio dantza txapelduna

Euskal Herriko 39. Dantza Txapelketako txapela Lierni Kamio billabonatarak jantzi zuen urriaren 17an, Iker Sanz lezotarrarekin batera. Xabier Artola irurarra bigarren sailkatu zen, Idoia Besadarekin. Era berean, Aimar Odriozola, Izaro Urrestarazu eta Iratxe Lizarburu ibartarrak ere aritu ziren, Segurako lehian.



Anoeta

Liburutegi berria zabalik

Lasarbe kaleko udal lokaletan zabaldu dute udal liburutegi berria. Haur eta helduentzako egoitza izango da. Urriaren 17an egin zuten inaugurazio ekitaldian, dantzariak, Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria eta udal ordezkariak izan ziren.

Tolosaldea

Euskaraz aritzearen aldeko epai irmoa

Irurako Udalari arrazoi eman eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzak beste auzi baterako eskatutako informazioa euskara hutsean bidaltzeagatik jarritako helegitea atzera bota zuen, estreinakoz, EAEko Auzitegi Nagusiak. Azaroan, Leaburu-Txaramako Udalaren aldeko epaia eman zuen epaitegiak, aktak euskara hutsean bidaltzeagatik jarritako salaketan.

Elduaingo Udalari aktak euskara hutsean bidaltzeagatik jarritakoan ere kontrako epaia jaso zuen Carlos Urkijok, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak. Bestalde, Altzoko Udalaren aurkako auzi eskea etenda gelditu da, Urkijok hala eskatuta. Euskara Plana euskara hutsean bidaltzeagatik jarri zion Altzoko Udalari auzi eskea.

Ibarra

Alurr dantza taldearen ikuskizun berria

Euskal Herriko ofizioak eta lanabesak izan dituzte inspirazio iturri Alurr dantza taldekoek euren *Lanabesak* ikuskizun berrian. Tradizioari eutsi diote sortze prozesuan, baina beti ere ukitu berezi bat emanez. Tolosako Topic-en estreinatu zuten lana, urriaren 31n.



Tolosaldea

Langileek ere bat egin dute

Tolosaldeko osasun zentroetako eta espezialitateen anbulatorioko langileek, lehen aldiz, bat egin zuten urrian eginiko agerraldian TOPAren aldarriekin, eskualderako kudeaketa publikoko ospitalea eskatuz. Azaroaren 7an mobilizaziora deitu zituen herritarrak Tolosaldea Osasun Publikoaren Aldeko koordinakundeak, eta 300 pertsona inguru batu ziren Tolosako Trianguloan eginiko elkarretaratzean.



Azaroa

Amasa-Villabona

Oinkari dantza taldeak 40 urte

1975. urteko azaroaren 20an sortu zen Oinkari dantza taldea. Urteurrenaren harira, hamaika ekitaldiz osaturiko egitaraua antolatu zuten dantza taldekoek, eta urteurrenaren egun berean, Oinkaritik igarotako belaunaldi ezberdinetako kideek prestatutako emanaldi berezia taularatu zuten.



Zizurkil

Zentroak 50 urte bete ditu

Mende erdi bete du aurtien Zizurkil Goiko Zentroak, eta urteurrena dela eta erakusketa antolatu zuen Teodoro Hernandorena kultur elkarteak, jai batzordearekin elkarlanean, garai bateko argazkiekin.



Tolosa

Miren Urkolari agur beroa

Aurreko legealdian Berdintasun eta Gizarte Politika zinegotzi izandakoa urriaren 28an zendu zen, eta azaroaren 1ean omenaldia egin zioten Euskal Pizkundearen Plazan, azken agurra emateko.



Tolosa

Mikrokosmos abesbatza txapeldun

Frantziako Mikrokosmos ganbera abesbatza izan da nagusi 47. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan. Parte hartu zuten kategoria guztietako txapelak lortu zituzten. Cor Infantil Amics de la Unio kataluniarrek, berriaz, izan ziren haurretan garaile.

ROUTE 33 GOURMET

1933 2012

www.hogeitahamahiru.com

Bazurka industrialdea, 1. zbkia
20260 Alegia • Tel.: 943 698 604

GOURMET OKINDEGIA GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA



Tolosa

Poxpolo ta Konpainiak agur

20 urteko jarduna eta gero, urtarrilaren 5eko azken emanaldiekin amaitutzat emango dutela Poxpolo ta konpainiak euren ibilbidea eman zuten jakitera. Bizitzaren gorabeherak tarteko, eta egun, bestelako ardurak eta eginbeharrak dituztenez ez dutelako lehen izaten zuten denbora guztia izaten, erabaki dutela agur esatea. Agur esaterakoan, oso gogoan izan zuten duela sei urte zendu zen Mokolo. Azken emanaldiekin batera DVDa ere prestatu dute.

Tolosaldea

Papergintzako langileak greban

Gipuzkoako papergintzako langileak lan baldintzak babesteko Adegirekin hamar hilabetez negoziaketetan aritu, eta ez aurrera eta ez atzera zeudela ikusita, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek grebarako deialdia egin zuten, eta langileek grebaren aldeko hautua bozkatu zuten. Hala, sei eguneko grebaz gain, manifestazioa eta elkarretartzeak burutu zituzten.

Albiztur

Juan Ugartemendia babarrunaren garaile

Albizturgo Urreta baserriko Juan Ugartemendiak irabazi du Tolosako Babarrun ekoizleen lehiaketako lehen saria. Seigarrenez jantzi du txapela Juan Ugarmendiak eta pozez hartu zuen saria. Aitortu zuenez, lehia handia dago ekoizleen artean, «geroz eta babarrun hobea egiten delako». Babarrunak ereiten direnetik bildu arte lan «izugarria» duela ere aitortu zuen.

Ikaztegieta

Martin Iturbe zendu zen

Azaroaren 26an hil zen idazle eta apaiz ikaztegiatarra 83 urte zituela. Alegian apaiztu zen eta, bertan hainbat urtez aritu ondoren, 1970. urtean Hondarribira joan zen. 1988tik 2011ra bitarte bertako parroko lanetan aritu zen, erretiroa hartu zuen arte. Hondarribian nahiz Ikaztegieta egin zituzten haren aldeko elizkizunak, eta jende ugari gerturatu zen agurra ematera.



Asteasu

‘Muskerraren Bidea’ errealitate

Bi kilometro inguru, zazpi panel eta Bernardo Atxagak Asteasuko tokiei lotutako irakurketa poetikoa biltzen ditu *Muskerraren Bideak*. Donostia 2016 eta Asteasuko Udalaren arteko elkarlanetik sortu zen egitasmoa. Herritarrei aurkezteko azaroaren 28an Muskerraren Eguna izendatu zuten. Bernardo Atxagak berak ibilbideak eskatzen dituen geldialdietan azalpenak eman zituen, eta oroimenerako argazkia ere atera zuten asteasuarek.

Bertsolaritza

Urtarrila

'Ataria' bertso jaialdia

Urtarrilaren 24ean egin zen ATARIA Bertso jaialdia eta beste behin ere bertsozaleek bete egin zuten Leidor. Amaia Agirreren esanetara, M. Lujanbio, J. Maia, M. Amuriza, A. Arzallus, S. Lizaso eta A.M. Peñagarikano aritu ziren.



Maiatza

Baserritarrei bertsotan

Tolosako azokan kulturak eta gastronomiak bat egin zuten maiatzean. Baserritarrei omenaldia egin nahi izan zieten eta Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariak postuz postu aritu ziren, ekoizleei bertsoak jarriz.



Azaroa

Bertsotan gaztetuz

Adin-adin programaren barruan lurrea-mendi egoitzan egin zuten saioa azaroaren 17an. Lankuk sustatu du ekimena eta Foru Aldundiaren babesa du. Tolosako lurramendin, Amaia Agirre eta Anjel Mari Peñagarikano aritu ziren.



Amasa

Har(r)ituz segi



Tolosaldean bagenekien bazekiela bertsotan. Eskualdetik kanporako bertsozaleentzat, ordea, nobedadea izan da Oihana Iguaran. Lehenengo aldiz entzun dute kantuan Ilunbeko finalean. Bertsotan hainbeste jenderen aurrean lehen aldia zuen amasarrak eta lortu zuen plaza handi horrekin gozatzea.

Harituzeko kideek taldean eman zuten izena 2015eko txapelketan. Tal-

dezala Oihanak



dean prestatu zuten eta taldean ospatu Iguaran finalera iritsi izana. Lorpen kolektiboa izan zen eta bertsoari urteetan eman diotena opari bezala etorri zitzaien bueltan; merezitako opari gisa.

Eta taldean ibili arren, bakoitzak utzi zuen bere lorratza. Artistak baitira, bertsozale *petoak*. Erakutsi dute Oihana Iguaranek, Beñat Iguaranek eta Mikel Artolak Txapelketa Nagusian eta gainerakoek plazaz plaza.

GBT15: final zortzirenak

Seirek hasi zuten bidea

Sailkapen fasean txartela lortuta, Haritz Mujika, Beñat Iguaran, Iñigo Gorostarzu, Oihana Iguaran, Mikel Artola eta Unai Mendizabalek abiatu zuten txapelketa irailean. Mujika eta Gorostarzu geratu ziren bidean. [ALBERTO ELOSEGI](#)



GBT15: final laurdenak

Irazu sailkapenik gabe

2011ko finalista gisa, final laurdenetan parte hartu zuen Irazuk eta ez zuen, tamalez, fasez pasatzea lortu. Ez da arituko, beraz, 2017ko Txapelketa Nagusian. Final erdietara sailkatzeko atarian geratu zen Unai Mendizabal. [A. E.](#)



GBT15: finalaurrekoak

Saio bakoitzean bana

Finalaurrekotan eskualdeko bertsolari bana aritu zen: Zarautzen Beñat Iguaran, Tolosan Oihana Iguaran eta Eibarren Mikel Artola. 1600 bertsozale gerturatu ziren Tolosako finalaurrekora eta Oihanak finaleko pasea lortu zuen.



Abendua

Tolosaldea



Hasi etxetik eta kalera, bizi euskaraz

Abenduaren 3ak puntu gorri bat du euskal egutegian, Euskararen Nazioarteko Eguna aldarrikapen eta ospakizunen arteko nahasketa bilakatu baita, bai erakunde bai herritarren

aldek. Aurten euskaldun berriak izan dira omendu dituztenak. Eskualdean hainbat ekitaldi izan ziren herri eta txoko ezberdinetan euskarari gorazarre egiteko. Irudian, Altzo.

Tolosa

Abbadia Saria, Kike Amonarrizentzat

Kike Amonarriz tolosarrak, «euskarari egindako ekarpenagatik», Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik jasoko zuen Abbadia Saria, abenduaren 3an, Euskararen Egunean. Pozik jaso zuen saria, eta alderdikeriak alde batera uztea euskararen aldeko pauso erabakigarria litzatekeela uste du.



Alegia

30.000 euro, lau proiektuetara

Alegiako Udalak martxan jarritako Aurrekontu Parte Hartzaileen prozesuak 30.000 euroekin zein proiektu egin erabaki dute herritarrek: Elizpe zinemako baliabideak hobetzea, adineko pertsonentzako ariketak egiteko tresneria ezartzea Kalebeherako parkean eta kultur etxeko instalakuntzen hobekuntzara bideratuko da azken zatia.

Tolosaldea

Eskualdeko lau proiektu estrategiko

Tolosaldea Saretzen, eskualdeko eragile publiko eta pribatuz osatutako plataformak apirilean jarri zuen martxan Proiektu Estrategikotarako Deialdia. Tolosaldea Goi Mailako LH Institutua eta Inmakulada Ikastetxea, Egoitz Zalakain ekin-tzailea, Peñascal kooperatiba eta Don Bosco Paper Eskola Indartzeko Elkartea dira aukeratutako proiektu horien sortzaileak.





Ibarra

Gaztelekuko ateak zabalik, Azkue auzoan

Ibarrako haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko asmoz, Gaztelekua zabaldu dute. Azkue auzoan dago, lehen ludoteka zegoen leku berean. Hilabeteak eman dituzte egokitzapen lanetan. Gazteekin egin dute hori: txukundu, pintatu... Pasa den urtean abiatu zuten udalak Ibarrako gazteen parte hartzearen inguruko diagnosis.



Tolosa

Tolosako Udalak Ueman jarraituko du

Maiatzeko hauteskundeen ostean, Tolosako euskalgintzaren inguruan zalantza sortu zen. EAJko udal taldeak ez zuen Ueman sartzeko aldeko jarrerarik, eta Tolosa mankomunitatetik ateratzeko arriskua sortu zen. Bilera eta zurrumurru asko eta gero, abenduaren 16an eman zuten jakitera beste urtebetez behintzat Ueman jarraituko dutela, «elkarlanerako oinarriak jarritz»



Tolosa

Abandonatutako fabrika bat, okupatuta

Uztailaren 24an, Gaztetxe bat sortzeko lehen saiakera egin zuen Tolosako Gazte Asanbladak Larramendin. Bada, bigarren saiakera bat ere egin zuten, abenduaren 23an, Izaskungo aldaparen hasieran kokaturik dagoen eraikina, garai batean Pinturas y lacas del Norte S.A. okupatu zuten, 20 bat gaztek. Harrez gero, barruan daude eta hainbat ekimen antolatu dituzte.

Amasa-Villabona



‘Akordatzen garelako bizirik daude’

Amasa-Villabonako Aritza kultur elkarteak omenaldia egin zien kontzentrazio esparruetan preso egondako bederatzi herritarrei; bereziki Adolfo Lozano Olazabal eta Alberto Beafourt. Akordatzen garelako bizirik daude izena jarri zioten omenaldiari, eta argitara atera zuten eurek bititakoa. Jaio ziren etxeetan plakak jarri zituzten. Senideek hunkiturik bititu zuten ekimena.

Amezketeta

Juan Mari Mujika etxean da

Juan Mari Mujika amezketarra aske geratu zen abenduaren 21ean. Abenduaren 9an izan zen eskualdeko lau herritarren aurkako epaiketa, tartean zen Mujika. Epaiketa horren emaitza da irteera hau. 2001ean Jose Maria Aznar Espainiako orduko gobernuburua hiltzen saiatzea leporatuta epaitu zuten Mujika, Luis Iruretagoiena ‘Suni’, Peio Olano eta Goio Jimenezekin batera.



Kirolak

 @Tolosaldeakirol

Tolosa

Lara Arruabarrena tenislaria, bikain

Mundu mailako txapelketetan parte hartu du tenislari tolosarrak 2015ean. Buruz burukoan nahi bezain fin ibili ez arren, binakakoetan maila bikaina erakutsi du Arruabarrena. Martxoan Acapulcoko txapelketa irabazi zuen, Tita Torrorekin, eta irailean, Seulgoa, Andreja Klepac-ekin.



Zizurkil

Bi apustu; bat irabazi, bestea galdu

Joseba Otaegik aizkora apustua Arria V.aren aurka jokatu zuen Tolosako zezen plazan, martxoan, galdurik. Alatzne Etxaburuak Irati Astondoari, aldiz, apustua irabazi zion aizkora eta segan, ekainaren 7an, Zizurkilen.



Futbola

Belardi berria, eta derby historikoa

Amasa-Villabonako Arratzain zelaiari belar artifiziala jarri zioten martxoan. Bertan jokatu zen lehen aldiz, azaroan, Billabona FKE eta Danenako talde nagusien arteko lehen partida. Etxekoak nagusitu ziren, 5-1.

Amezketeta



Ekaitz Saralegiaren agurra

Martxoan agurtu zuen amezketarrak pilotari profesionalen mundua. Herriarrek bi omenaldi egin zizkieten, eta martxoaren 21ekoan, herriko pilotaleku zaharrari Ekaitz Saralegi izena jarri zioten.

Pilota

Jaka, Tolosa eta Zeberio II.a, txapeldun

Bigarren mailako binakako txapelketa irabazi zuten Erik Jaka lizartzarra eta Xabier Tolosa anoetarrak Iruñeko Labriten, maiatzean. Hilabete berean, Patxi Zeberio elduaindarra, erremontean, Sagardoaren Txapelketan nagusitu zen, Endika lagun zuela.



Tolosaldea



I. Ataria Txapelketa jokatu da

Uztailean amaitu zen I. Ataria Txapelketa. 300 pilotari baina gehiagok parte hartu zuten, eskuz nahiz gomazko paletan. Finalak Tolosako Beotibarren jokatu ziren, harmailak beteta zirela.

Fitxaketak

Maiza, Murua eta Lasa, protagonista

Nerea Murua futbolari altzotarrak lehen mailara jauzi egin zuen, Oiarzungo futbol taldearen eskutik. Gaizka Maiza ibartarra TAKE Saskibaloia utzi eta Azpeitiko Iraurgira joan zen, LEB mailara. Lander Lasa tolosarrak alderantzizko bidea egin zuen, udan, TAKEra itzuli baitzen.



Tolosa

Xabier San Sebastian, garaipen eta lorpenak

Txirrindulari tolosarrak Errepideko Mundialetan parte hartu zuen, eta profesionaletan aritzeko ere aukera izan zuen. Horrez gain, 2015ean garaipen ederrak lortu ditu Xabier San Sebastianek. Ronde de L'Isardin Itzulian, 23 urte azpikoen nazioarteko lasterketan, garaipen handia lortu zuen hirugarren etapen.



Mendi lasterketa

T3T, eta eskualdekoen maila bikaina

Tolosaldeko 3 Tontorren lehen edizioa Hassan Ait Chaouk irabazi zuen, ekainean. X Camile Xtreme irabaztetik zetorren billabonatarra. Iker Karrera amezketarrak Els Bastions Ultra Traila eta Portugalgo Peneda-Gerês Trail Adventure irabazi zituen maiatza eta ekainean. Txomin Isuntza asteasuarrak, Transilvanian 100 kilometroko lasterketa irabazi zuen, maiatzean.



Urtean zehar Tolosaldeko kirolariek lortu dituzten lorpenak, Gipuzkoako, Euskal Herriko, Espainiako, Europako edo Munduko txapelketetan.

GIPUZKOA

Urtarrila 18. Gipuzkoako Pista Saria irabazi zuten Donostiako Belodromoan, Jon Irisarri leaburuarrak, eta Maddi Amondarain eta Unai Iribar ibartarrek.

Martxoak 29. Gipuzkoako Batel Txapelketan Tolosaldeko arraunlariek hiru zilarrezko eta brontzezko domina bat lortu zituzten, Getariako uretan.

Martxoa. Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan 12 domina lortu zituzten Danok Danena Halterofilia taldeko pultsulariek. Horietatik zortzi urrezkoak. Maiatzean Espainiakoan Susana Davilak eta Goretzi Amonarrirek bigarren eta hirugarren postuak lortu zituzten.

Maiatzak 15. Anoetako Futbol Taldeak Gipuzkoako Seniorren Kopa irabazi zuen.

Maiatzak 23. Gipuzkoako Txapelketan Belabietako gimnastek urrezko domina bat, hiru zilarrezko eta bi brontzezko lortu zituzten.

Maiatzak 31. Gipuzkoako Atletismo Txapelketak jokatu ziren Donostian. Tolosa CF Atletismo taldekoek hiru urrezko eta lau zilarrezko domina lortu zituzten.

Ekainak 17. Aizarnazabal, Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketan, Leire Olaberria ikaztegiatarra txapeldun; Ane Iriarte billabonatarra hirugarren; Xabier San Sebastian hirugarren, eta Maddi Amondarain bigarren.

Ekainak 21. Zizurkilen, Alatzne Etxaburua zizurkildarra txapeldun, Gipuzkoako Azkartasuneko Segatxapelketan. Ainara Otamendi ibartarra hirugarren.

Uztailak 18. Gipuzkoako Giza Proba Liga hirugarren amaitu zuen Berrobik.

Abuztuak 10. Gipuzkoako Txingara Eroate Txapelketa Lander Otermin ibartarrak irabazi zuen, Aian.

Urriak 18. Gipuzkoako Iristak Txapelketan Imanol Imaz txapeldun, Unai Perea bezala. Josu Aldatz bigarren, eta Aritz Marin hirugarren.

Azaroak 1. Ezker Hormako Elkarteen Arteko Txapelketan, Anoetako Su Berriko bikotea, Garmendia-Maiza, bigarren. Bigarren mailan, Zizurkilgo Ziotzako San Sebastian eta Erasun ere bigarren.

Abenduak 13. Gipuzkoako Kros Txapelketan, Oiangun, Maddi Sanchez bigarren; Maria Lasa txapeldun; Unai Señoran txapeldun, eta Ibon Gonzalez hirugarren.

EUSKAL HERRIA

Otsailak 1. Unai Arroyo tolosarrak Euskal Herriko Kros Motzeko txapela jantzi zuen Azpeitian.

Otsailak 15. Tolosa CF Atletismo taldeko kadeteek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten, Elgoibarren. Maria Lasak gainera lasterketa irabazi zuen.

Martxoak 8. Alpino Uzturrekoak Belaguan izan ziren, Euskal Herriko Txapelketan. Irati Izagirre txapeldun geratu zen juniorretan; Olaia Plazas infantiletan; Mikel Plazas hirugarren kadeteetan, eta Joseba Rojo bigarren nagusietan.

Apirilak 19. Euskadiko Batel Txapelketan TAK-eko arraunlariek hiru zilarrezko domina lortu zituzten Legutian.

Apirilak 26. Euskadiko Klubak Arteko Txapelketan, emakumeen taldea

eta gizonena, hirugarren postuan gelditu zen.

Maiatzak 9. Gipuzkoako Txapelketan, gimnastika erritmikoan, Belabietako hiru podiumean, infantil b mailan: Leire Uranga, Laia Ortiz eta Alazne Iturbe.

Ekainak 7. Durangon, Euskal Herriko Gimnastika Txapelketa jokatu zen. Belabietako jubenilek hirugarren egin zuten.

Uztailak 12. Euskal Herriko Segatxapelketa irabazi zuen Alatzne Etxaburua zizurkildarrak, Aian.

Abuztuak 9. Euskal Herriko Segatxapelketan, Asteasun, Jexuxmari Ormaetxea 'Urki' orendaindarra hirugarren.

Irailak 27. Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa irabazi ondoren, Euskal Herrikoan hirugarren gelditu zen Eneko Garmendia baliarraindarra.

Urriak 12. Euskal Herriko Aizkora Txapelketan, Basaurin, Jon Irazu zizurkildarrak bigarren egin zuen; Joseba Otaegi herrikideak, seigarren.

Urriak 18. Euskal Herriko Raid Liga irabazi zuten Maitane Garmendiak eta Beñat Doyharzabalek, bost jardunaldiak irabazita.

Azaroak 21. Euskal Herriko Sokatira Txapelketa irabazi zuen Ibarrek, 320 kilotan, eta goma gaineko 4X4 modalitatean. Abenduaren 12an, garai-pena 260 kilotan iritsi zen.

Abenduak 20. Asteasun, Harri Handien Euskal Herriko Txapelketan, Iban Ugartemendia hernialdetarra hirugarren.

Abendua. Gipuzkoako Ziklo Kros Txapelketa irabazi ondoren, Euskal Herrikoa irabazi zuen Jokin Alberdi zizurkildarrak, juniorretan.

ESPAINIA



Urtarrilak 11. Jokin Alberdi zizurkildarra Espainiako ziklo kros txapel-dun, Xixonen.

Otsailak 1. Egoitz Zalakain tolosa-rrak Espainiako Neguko Triatloi Txapelketa irabazi zuen Reinosan. Europako laugarren gelditu zen.

Martxoak 8. Donostian Espainia-ko Beteranoen Txapelketak jokatu ziren atletismoan, hiru egunez. To-losa CF Atletismoa taldekoek lau domina lortu zituzten. Andu Marti-nez de Rituerto eta Armando Rocak urrea; Juan Karlos Etxebestek zila-rra eta Sergio Romanek brontzea.

Martxoak 8. Eneko Agirre zizurkil-darrak Espainiako Mushing Txapel-keta irabazi zuen, Skijoring modali-tatean, Baqueira Bereten.

Martxoak 22. Fondoko Espainia-ko Txapelketan Alpino Uzturrek be-deratzi domina lortu zituen, Linzan. Imanol Rojo eta Txiki Plazas tolosa-rrak txapel-dunen artean ziren.

Apirilak 26. Guadalajaran, Tolosa CF Gimnastika Erritmikoko Saroi Eskisabel Espainiako txapel-dun gelditu zen.

Apirilak 26. Espainiako txapeldu-norde gelditu ziren Tolosaldea Arraun Klubeko neskak, Moñan.

Maiatzak 10. Gipuzkoako Trialsin Txapelketako lau proba eta txapela jantzi ostean, Espainiako Kopa ira-bazi zuen Irene Caminos tolosa-rrak.

Ekainak 7. Espainiako Kilometro Bertikaleko Txapelketan Aitziber Ibarbia zizurkildarra hirugarren.

Ekainak 13. Absolutu Mailako Hal-terofilia Txapelketan, Susana Davi-la hirugarren eta Mikel Alvarez bi-garren. Ekainaren 27an, 17 urte

azpikoetan, Susana Davilak hiru urrezko domina lortu zituen. Ayna-bel Davilak, aldiz, hiru zilarrezko.

Ekainak 21. Erlojupeko Txirrindu-lari Txapelketan Leire Olaberria hi-rugarren.

Ekainak 28. Irene Caminos Elite Mailako Espainiako Trialsin Txapel-ke-tan, garaile.

Ekaina amaiera eta uztaila hasie-ran. Igarondo Urpekoek hainbat domina lortu zituzten. Intza Egiza-balek infantil eta kadeteen txapel-ke-tan bi zilarrezko eta brontzezkoa lortu zituen. Juniorren eta senio-rren txapelketetan, Irati Lakuntzak urrezko hiru domina lortu zituen, eta Aras Karakusek zilarrezko bat eta brontzezko bat.

Uztailak 11-12. Unai Iribar txirrin-dulari ibartarrak erlojupekoan brontzea lortu zuen, eta taldeka urrea.

Abuztuak 30. Pistako Txapelke-tan, Madrilen, Eukene Larrarte eta Maddi Amondarainek brontzea lor-tu zuten taldeka. Amondarainek, horrez gain, brontzezko bi domina eta zilarrezko bat irabazi zituen. Unai Iribarrek urrezko bi domina eta brontzezko beste bat lortu zi-tuen.

Urriak 17. Danok Danena Haltero-filia taldeak Madrilen jokatu zen Espainiako Kluben Arteko Txapel-ke-tan brontzezko domina lortu zuen.

Azaroak 29. Sprint distantzian, Es-painiako Mushing Txapelketan, Eneko Agirre zizurkildarra bigarren.

Azaroa. Tolosa CF Gimnastika Errit-mikoko 13-14 urteko neskak Es-painiako txapel-dun, taldeka.



EUROPA

Martxoak 29. Armando Roca tolo-sarra Europako txapel-dun gelditu zen beteranoen mailan, 80 metro-tan. Atletismo txapelketa Polonian jokatu zen.

Uztailak 24. Europako Trialsin Tx-a-pelketan Irene Caminos tolosarra bederatzigarren, Austrian.

Uztaila. Beñat Doyharzabal eta Maitane Garmendia ibartarrak Eu-ropako Raid Txapelketan izan zi-ren, Raid Arango Txapelketa irabazi ostean.

MUNDUA

Urtarrilak 18. Leire Olaberria ikaz-tegi-tarrak zilarrezko domina ira-bazi zuen Pistako Munduko Kopan, Kolonbian, Omnium proban.

Otsaila. Imanol Rojo tolosarra Sue-dian egon zen Munduko Txapelke-ta lehiatzen.

Ekainak 7. Italian, Hegats Igerike-tako Beteranoen Munduko Txapel-ke-tak jokatu ziren. Tolosako Igaron-do Urpekoak Taldea bertan egon zen. Patxi Mongek hiru urrezko do-mina lortu zituen. Gregorio Manci-sidorrek seigarren amaitu zuen bere proba.

Iraila. Irene Caminos tolosarra Munduko Trialsin Txapelketan zor-tzigarren, Andorran.

Azaroak 19. Gael Elkartea mundu-ko txapel-dun, Mikrofutsalean.

Abenduak 13. Imanol Rojo tolosa-rrak, eskian, lehen hamarren arte-an sartzea lortu zuen Frantzian, Munduko Kopan.



Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

muebles **IBARRA**

altzariak

Essenzia
Dormire



Euskal Herria kalea 37 behea • IBARRA
mueblesibarra.decoracion@facebook.com

KALITATE HOBERENA, PREZIO ONEAN



**Zorionak eta
Urte Berri on!**

Facebooken ere gaude!



9-90

19-90



19-90

19-90



- Berogailudun terraza • Pintxo eta gutuziak
- Entrekot eta arrautza apurtuen hanburgesetan berezitasuna
- Entsalada originalak • Gin&Tonic-aren aitzindariak
- Izendapen jatorriko askotako ardoak
- Aperitiboak bermut ezberdinekin eta ohiz kanpoko frijituak




Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017

-90

19-90

Patinaia pista Villabonan



ERREBOTE PLAZA

Abenduaren 15etik urtarrilaren 10era
11:00-14:00 / 17:00-21:00

GABONETAKO ZOZKETA: URTARRILAK 12

1.175 €. 4 diru sortatan banatua (6 hilabeteko epea)

www.oriamerkatariak.com